

Nafarroako hizkuntza eta Euskadi

Deia, 1977-11-17.

Nafarroa berez herri bat da: Herri osoa. Eta berezko herriak dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa; hala agertu baitira beti historian zehar. Eta era berean Lapurdi eta Zuberoa. Eta sei herriak batera, Vasconia, Euskalerrria eta Euzkadi osatzen dute; Vasconia lehen historian, kanpotarren deituran; gure barrukoan, berriz, Euskalerrria, euskaraz egiten duen herria; eta, azkenik, barruko eta kanpokoak bat datozen zentzu politiko "modernoa"n: Euzkadi.

Bada "Euzkadi" honi nik jarri izan dudana kronologian ukranio-ren bat aurkitu dion norbait. Borrokatxotan aspertzen ez den honek imajinario izpitxo bat balu, ulertuko luke "Euzkadi" kontzeptu politiko berri bat adierazten duela.

Sabino Aranek izen honekin adierazi nahi izan zuen errealitate hau sortua zegoela, eta gure historian mila bideetatik somatzen dugula.

Gudu karlisten ispirituan eta hizkuntzak erakusten duenean, esate baterako.

Eta hau da lerro horiekin adierazi nahi nukeena berriz ere; Euzkadi, Euzkadi-ren ispiritu politiko hori, gure herritasunean, gure etnia eta nazionalitatean, betidanik, bizi izan dela.

Colon-ek aurkitu aurretik Amerika hor zegoen bezala.

Nafarroaren euskalduntasuna jartzen dute zalantzan batzuek.

Hara hemen, Nafarroak euskara bere zuela ofizialki adierazten duen probatxo bat.

Gorputzi, Bestaberri eguna zela-ta, baina 1609an, Iruñeko gotzai zen Antonio Venegas de Figueroa-k olerki-lehiaketa bat sortzen du; gaia: Aldareko Sakramentu donea.

Eta honetarako egin zuen deiak honelaxe dio:

"Y porque celebrándose en este reyno de Navarra la solemnidad de esta fiesta, no es razón que la lengua matriz del reyno quede desfavorecida, se pide en este certamen un romance de doce coplas en bascuence, que lleve un estribillo de tres a tres coplas. Y al que mejor lo hiciere se le darán tres varas de tafetán, y al segundo, dos de olanda. Al tercero tres pares de guantes blancos".

Garbi dago, orain dela 368 urte Nafarroan zer hizkuntza aitortzen zuten ofizialki beren sustraietako bezala.

Kontuan hartu da orain ere, Euzkadi osatzen duten osakiak berlotzen hasten garenean, gure eskoletako, unibertsitateko, gure administraziorako, gaur erabiltzen ditugun hizkuntzetatik Euzkadi osoan sustraietako eta nagusia zein den erabakitzerakoan.

Orduko euskararen proba, hara hemen lehenengo sari irabazi zuen Pedro de Ezkurrak "Aldareko Gorputz Sanduari" eskaini zion lehenengo bertsoa nola zen:

"Jakitea izan banu
borondatea bezala

ene anaia, erranen nizu
nor daukagun maiean".

Bigarren saritua izan zen Migel Aldaz. Migel Aldaz-ek idatzi zuen, eta honela hasten da:

"Egun gizona deitu du
Jainkoak bere maiera
eta dakar zerutik
ematen dion ogia".

Eta hirugarrenaren merezigarri egin zen Joan de Elizaldik, berriz:

"Ola goazen igitara:
ari gaitezen zoriturik
zeren garian zoriturik
dago Jainkoa lurrean".

Hara hemen, inondik nafarren artean norbaitek uste ez bazuen ere, Nafarroako elizak ofizialki Nafar Herriaren hizkuntza zein den nola adierazten duen.

Orduan, 1609an ere, Euzkadi bizi zen.